



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Vancouverreko Ballet BC konpainiak programa hirukoitz ikusgarri batean eskainiko ditu Sharon Eyal, Crystal Pite eta Medhi Walerski zuzendari artistikoaren piezak Arriaga Antzokian

- Kanadako ballet ospetsua, Amerikako punta-puntako bat, Bilbora iritsiko da asteburuan bere ikuskizunaren bi emanaldi eskaintzeko Arriagan, otsailaren 11n, larunbatean, eta hilaren 12an, igandean; biak 19:00etan.
- Programako lehen pieza *Bedroom Folk* hipnotiko eta indartsua da, Sharon Eyal israeldarrarena, Gai Beharrekin elkarlanean sortutakoa; bigarrena *The Statement* da, Crystal Pite-rena, asmamen basatiz betetako dantza-eta antzerki-fusioa; eta azkena *GARDEN* dotore eta sofistikatua da, Medhi Walerski Ballet BC-ko zuzendari artistikoarena.

Bilbo, 2023ko otsailaren 7a.- Ballet du Grand Théâtre de Genève-ren emanaldi txundigarria izan genuenetik aste gutxi igaro diren honetan, Arriaga Antzokiak 2023ko bigarren nazioarteko dantza hitzordu handiari egingo dio harrera. Oraingoan, Amerikako konpainia garrantzitsuenetako bat izango da protagonista: Vancouverreko **Ballet BC**. Kanadako taldea, **Medhi Walerski** koreografo prestigiotsuaren zuzendaritzapean (aurretik Nederlands Dans Theatre-NDTko eta Parisko Operako Balleteko dantzari izandakoa da), Bilbora iritsiko da, Arriaga Antzokian egitarau hirukoitz ikusgarri bat eskaintzeko. Ballet BCk otsailaren 11n, larunbatean, eta hilaren 12an, igandean (19:00etan bi egunetan), elkarren artean oso desberdinak diren hiru pieza interpretatuko ditu. Hiruak ere nazioarteko dantzako artista handiek sinatutakoak dira: *Bedroom Folk* **Sharon Eyal** israeldarrarena da, Gai Beharrekin elkarlanean egindakoa; *The Statement* **Crystal Pite** gaur egun modan dagoen koreografo kanadarrarena; eta *GARDEN*, programa itxiko duen pieza, **Medhi Walerski**rena.

Egitarau hirukoitza zehatz-mehatz ikusita, aurreikustekoa da dantza emanaldi benetan hunkigarria izango dela. Emanaldia hasteko, Sharon Eyal israeldarrak Gai Behar artista eta ekoizlearekin batera sortu duen *Bedroom Folk* pieza ikusgarria eskainiko dute. Hemezortzi antzezlek interpretatutako talde-koreografia da, eta Ori Lichtick artistaren musika elektronikoan oinarrituta dago. Dantzariak dantza hipnotiko batera bideratuko dituzte, eta, aldi berean, askotariko keinu konplexuak egiteko ahalmena berenganatuko dute, maisuki, musika oroitarazle eta indartsua lagun dutela.

The Statement izango da gaueko bigarren pieza. Mundu mailan ospetsua den Kanadako Crystal Pite koreografoak irudimen itzelezko sorkuntza-lana proposatzen du, dantza eta antzerkia uztartuta botere-gatazka aztertzen duena. Kontrola eskuratzeko borrokan murgilduta dauden lau antzezlek manipulazioari aurre egingo diote. Jonathon Young antzerkigile kanadarraren testu indartsua da lanaren euskarria. Crystal Pite,

gaur egun nazioartean erreferentzia den koreografoetako bat, duela urte batzuk Ballet BCko ikaslea izan zen, eta konpainiarekin lankidetzan eta hurbiltasunean oinarritutako harremana du, pieza honek baieztatzen duen bezala.

Emanaldia ixteko, dantza-konpainiak *GARDEN* lana eskainiko du. Medhi Walerski zuzendariak sortutakoa da, Camille Saint-Saëns musikagileak piano eta hari boskotearentzako La minorrean konposatutako musika-lanean inspiratuta. Hala, ikuskizun arin eta organikoan, elkarrizketa liluragarria sortuko da musika finaren eta dantzarien gorputz sentsualen artean. Ballet BCko zuzendari artistikoak gure gizateriaren existentziaren oda gisa sortu du obra dotore eta sofistikatu hau.

Ballet BC-ri buruz

1986an David YH Lui, Jean Orr eta Sheila Begg-ek sortua, Ballet BC Medhi Walerski zuzendari artistikoaren zuzendaritzapean dago gaur egun. Vancouver-en (Kanada) egoitza duen konpainiak, sorkuntzan eta lankidetzan oinarritutako ekarpen paregabea eta baliotsua egin du dantza garaikidearen garapenean bai bere herrialdean, bai mundu osoan. 2019an, konpainia Dantza Produkzio Berri Onenaren Olivier sarirako izendatu zuten Londresko Sadler's Wells-en egindako biragatik.

Ballet BCk XX. mendearen amaierako eta XXI. hasierako Kanadako eta nazioarteko lanen erreperitorio anitza aurkezten du, besteak beste, William Forsythe, Cayetano Soto, Sharon Eyal eta Gai Behar, Johan Inger, Medhi Walerski, Ohad Naharin, Crystal Pite, Company 605, Jorma Elo, Wen Wei Wang, Itzik Galili, Serge Bennathan, Walter Matteini, José Navas, Emanuel Gat, Emily Molnar eta abar, eta lan berrien sorkuntzarekin eta interpretazioarekin konprometituta dago.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 eta 45 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Ballet BC - Vancouver

Bedroom Folk

Munduko Estreinaldia, 2015eko apirila, Nederlands Dans Theater I
Iparramerikako Estreinaldia, 2019ko maiatza, Ballet BC

Koreografia: **Sharon Eyal**

Kosortzailea: **Gai Behar**

Entseguen zuzendaria: **Nicolas Ventura**

Soinuaren Artista eta Musika: **Ori Lichtik**

Argiztapenaren diseinua: **Thierry Dreyfus**

Jantzien diseinua: **Rebecca Hytting**

Iraupena: **26 min.**

The Statement

Munduko Estreinaldia, 2016ko otsaila, Nederlands Dans Theater
Konpainiaren Estreinaldia, 2021eko azaroa, National Arts Centre

Koreografia: **Crystal Pite**

Musika: **Owen Belton**

Testua: **Jonathon Young**

Ahots emanaldia: **Meg Roe, Colleen Wheeler, Andrew Wheeler, Jonathon Young**
Argiztapenaren diseinua: **Tom Visser**
Eszenografia: **Jay GowerTaylor**
Jantzien diseinua: **Crystal Pite, Joke Visser**

Iraupena: **20 min.**

GARDEN

Munduko Estreinaldia, 2016ko iraila, Nederlands Dans Theater I
Konpainiaren Estreinaldia, 2021eko azaroa, Ballet BC

Koreografia: **Medhi Walerski**
Eszenaratzea: **Rupert Tookey**
Musika: **Piano Quintet in A Minor, Op. 14: Allegro moderato e maestoso; Andante sostenuto; Camille Saint-Saëns**-ena
Hauen eskutik: **Cristina Ortiz, piano; Fine Arts Quartet Naxos of America, Inc.**-ri esker
Soinuaren diseinua eta dramaturgia: **Pierre Pontvianne**
Argiztapena eta eszenatokiaren diseinua: **Theun Mosk**
Jantzien diseinua: **Medhi Walerski, Joke Visser**

Iraupena: **24 min.**

Informazio gehiago:
Komunikazioa - TEATRO ARRIAGA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus